

## Hernaniko langile bat hil da 12 metroko argindarraren postetik erorita

Itxuraz, deskarga elektriko bat jaso eta lurrera erori zen; istripua Nafarroako Ororbia herrian izan zen, asteartean.



Hernaniko poligonoetan ere badira metroz eta kablez ondo osatutako posteak.

Iñaki Legarra, 32 urteko hernaniarrak *Duskabea Electrónica del Urumea, S.A.* enpresarentzat egiten zuen lan. Asteartean Nafarroako Ororbia herrian ari zen poste elektriko baten goikaldean kableak manejatzen. Deskarga elektriko bat hartu eta postearen muturretik 12 metroko alturatik lurrera erori zen.

*SOS Nafarroak* salbamentu talde bat bidali zuen lan-istri-

pua izandako tokira, baina, ahalegin guztiak alferrik. Ez ze-goien zer eginik.

### HERNANIKO CCOO-EN SALAKETA

Istripu honen aurrean, CCOO talde sindikalak salatu egin du arrisku handiko lanbidetan zenbat langile hiltzen den baldintza txarrak medio. Halakorik berriz gerta ez dedin neurri hauek eskatu ditu:

1. Formazio eta informazio planak.

2. Lanorduak gutxitu eta epe luzerako kontratatuak egitea.

3. Kontratu eta subkontratetan istripurik ez izateko bideak eta ahaleginak koordinatzea.

4. Hartutako neurriak betetzen diren berta-bertatik jarraitzea.

CCOO sindikatuak deialdia egin du gaur, Plaza Berrin, kontzentrazioa egiteko eguerdiko 12:30 etan. □

## Txantxangorri hasi dira 'ehiza-tokiak' zozketatzen



Ezkerrez ere zenbaitek erreztiratzen du.

EHIZA garaia abuztuaren 20az geroztik zabalik da, eta Txantxangorri elkarteak hasi da ehiza tokiak zozketatzen. *Postuak*, bestetan bezala, ehiza-egunaren bezperan zozketatuko dira; arratsaldeko

8etan, elkartean bertan, egu-nero.

### 42 POSTU

Denera, 42 postu, Aranburu eta Arizmendi inguruan. Abenduaren erdia arte zabalik. □

### JOAN DEN IGANDEKO ISTILUAK

## “Hernaniko Udalak duen erabakitze eskubideen gaintik pasatu dira”

Hala esan zuen Imanol Beroitz zinegotziak atzo udalak emandako prentsaurrekoan.

EKAIN Ruizen heriotza dela eta joan den igandean gertatutakoa “oso-oso larria izan da” Hernaniko Udalaren hitzetan. Batzarrean onartutakoa indarrik gabe uztea “erabaki politikoa” izan dela salatu du. Garbi utzi nahi du “Hernanin istiluak ez direla sortu Udalak hartutako erabakia dela eta, baizik eta, Madriletik eta

Ertzantzaren bitartez udalak erabakia eragotzi nahi izan dutelako oztopo biolentoak jarritz.” Bestalde marko berraren eta Lizarra-Garazi-ren aldeko apustua berretsi du. Kazetari batzuri beren lana zergatik galerazi zitzaizen galdetuta alkateak zorrotz erantzun zuen: “erabaki hori ez da Hernaniko Udaletik atera.” □

### ERREMONTA

## Eizagirre eta Zeberio II.a finalaurre bila

EIZAGIRRE eta Zeberio II.ak elkar probatuko dute gaur Galarreta pilotalekuan. Bingo Londres torneoaren barruan, bi erremontistek asko dute jokoan: ez partidua bakarrik, finalaurre pasatzeko txartela, eta txapelkun haundi bat mendean hartzeko aukera.

### LIZASO ZAI

Aurreko larunbatean Altuna mendean hartuta sailkatu zen Lizaso. Datorren asteartean, Lizasok Eizagirre edo Zeberio II.aren aurka jokatuko du. Finalean, berriz, Ezkurra, azken bost urteotako txapelkuna, izango du datorrenak. □



Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua ZALAKAIN-URKO / ZEBERIO III-ETXEBERRIA II
- ⇒ 2. partidua “BINGO LONDRES” SARIA: EIZAGIRRE / ZEBERIO II
- ⇒ 3. partidua EZKURRA-IMAZ / ALTUNA II- IRIARTE
- ⇒ 4. partidua ELIZALDE- ZUBELDIA / MATXIN- AUZMENDI

## SANTA BARBARAKO ESKALATZEKO TOKIA

# “Bia errexenak gasta-gasta eginak daude”

Abuztuan eskalatzaile gehienek oporretara aldegin dute, baina, bistan da urtean zehar zenbat jende dabilen: hainbeste zapatila eta belau-urratuk harria lehundu dute.



Hernaniko eskalatzaile bat Santa Barbarako paretean gora, azala urratzeko beldur haundirik gabe.

HERRIKO gazte gehienek probatu dute noizbait bertako harri-hotzaren igurtzia, Institutuko klaseren batetik piper eginda. Abuztuan ere beti bada markak hobetu nahian dabilenik, baina, gehienek oporretara aldegiten omen dute, Santa Barbaran ikasitakoa beste harkaitzetan luzitzera.

### 55 BIA

Eskalatzeko tokian gailur altuenak 25 metro ditu, eta

hormaren alderik-alde 55 bia daude. Bia bakoitzak du bere izena: eskalatzaile askok, irekitzen duen bari andregaiaren izena jartzeko ohitura du, horren adibide *Maria Montserrat*, *Beatriz*, *Marivi*, edo *Inaxi* biak. Eskalatzaile ez hain orteroek izen zelebreak jarri dizkiete irekitako bia berriei: *Musquillo en el sobaquillo*, *Te rilas por las trancas*, *Speed sudurratik*, *Chubasqueiro do pito*, *Sardinas*

*Chantilly*, *Crucifixion*, *Zakitoro*, *Zarauztarrak*...

Biarik errezenek 4<sup>o</sup>ko zailtasun maila dute, eta denetan zailena *Chindasvinto* da (8a+).

### BIA ERRAZAK GERO ETA ZAILAGOAK DIRA

Santa Barbaran herriko eta kanpoko asko ibiltzen da. Eskalatzaile baten esanetan biarik errezenak oso labain daude, “gasta-gasta eginak”, eta zaila da hormari heltzea. □

## Portuko bidea zabalik da berriz

ASTEARTEAN eta ostegunean itxita egon da Portuko tren zubipeko pasabidea, *Euskaltel* konpainiarentzat *fibra optikoa* sartzen aritu baitira. Obrako arduradunak atzo bertan bukatuko zutela agindu zion Kronikari, “ezeren okerrik ez dela”. Gainerakoan, Udaltzaigoak bide eta kale guztiak zabalik daudela esan digu. □



Portuko tren zubiaren azpian masa botatzen.

## HITZ BITAN



Garikoitz Erroizena. Ea beste behin ere txapela jartzeko aukerarik duen!

### ✓ PELOTA

Erroizena-Argote bikotea Antiguoko 51. txapelketako finalean. Atzoko partiduan Urruzola eta Irurieta kontrarioei egurra eman zieten, gogor jokatuta. Kontrarioak 9 tantutan utzi, eta Erroizena-Argote bikotea finalera.

### ✓ ATSEGINDEGI

Astelehenean hasi behar zuten aparkalekua asfaltatzen. Baina, munizipalek jakinarazi digutenez, seguruenik datorren astelehenean hasiko dira.

### ✓ FERIA

Atzietako bide-berritze lanak bukatu dira eta aste honetan landare eta hegazti postuak betiko lekuan, Atzietan, jarriko dira. Gainontzekoa, berriz, Urbietan.

### ✓ JACAN ATXILOTUAK ASKE

Igande goizean Huescan kontrol batean atxilotu zituzten hiru hernaniarrak (*Txuria*, *Pitu* eta *Wilbo*) etxean dira, guardia zibilen esku 15 orduz egonda. □

## HERIOTZAK

Mikel Legarra jauna

Asteartean hil zen 32 urte zituela.

Jose Leon Uharte Arriaran jauna (Medikua)

Astelehenean hil zen, Iruñan, 78 urte zituela.

Ramon Gil Zugasti

Asteartean hil zen 68 urte zituela.

Hileta elizkizunak gaur **zazpitan** San Juan Bautista Parrokian.

## ☎ TELEFONOAK

- ☎ Taxiak: 943 550093
- ☎ Udaltzaingoa: 943333288
- ☎ DYA: 943464622
- ☎ 943 335533
- ☎ Anbulatorioa: 943 557750

## ☒ FARMAZIAK

- ☎ Egunez: Sagastiberri  
Urbietan, 7  
☎ 943552941
- ☎ Gaez: Ansa  
ANDOAIN: G.Ondarreta  
☎ 943591302

## IRAGARKI MERKEAK

- ☎ Jatetxe batean, garbitasunerako emakume bat behar da. Kotxea beharrezkoa. Tel.: 943 55 64 81.
- ☎ Neska behar da, etxekolanak egiteko eta bi ume zaintzeko. Tel.: 943 55 08 66 - 606 13 41 09.